

## 120. ALDIZKARIA - 2001eko urriaren 3a

### Antsoaingo Udalaren Eremu publikoaren ordenantza

Antsoaingo Udalak, 2001eko abuztuaren 31n egin osoko bilkuran, behin betiko onetsi zuen Antsoaingo Udalaren Eremu publikoaren ordenantza.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 326. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratzen da ordenantzaren testua.

Antsoainen, bi mila eta bateko irailaren hamahiruan. Alkate udalburua, Alfredo García.

ANTSOAINGO UDALAREN EREMU PUBLIKOAREN ORDENANTZA

ATARIKO TITULUA

Xedea eta aplikazio esparrua

1. art. 1. Ordenantza honek ondokoa arautzen du: Antsoaingo etorbide, pasealeku, kale, plaza, herrilurra, zubi, parke, lorategi, iturri eta udalaren mugapean dauden gainerako udal-ondasun publikoen erabilera komuna eta pribatiboa.

2. Eremu publikoa txukuntzeko eginkizunaren pean sartuko dira orobat pasabide partikularrak, etxarteak eta lur gaineko zerbitzu publikoa egiten duten ibilgailuak.

2. art. 1. Ordenantza hau aplikatuko da Antsoaingo Udalaren mugape osoan, eta ezarritakoa betetzera beharturik egonen dira bizilagun guztiak, norberaren kalifikazio juridiko-administratiboa zeinahi dela.

2. Ordenantza honen edukia ez ezagutzeak ez du balioko aitzakia gisa, ezarritakoa betetzen ez den kasuetan.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Errotuluak eta zenbakiak

3. art. Bide publikoak ezagutu eta bereizteko, haietako bakoitzari izen edo zenbaki jakin bat emanen zaio, hain zuzen ere Udalak onetsiko duena. Ezin izanen dira izen edo zenbaki bereko bi hiri-bide izan, ezta grafikoki edo fonetikoki antzekoak direnak, baldin eta horregatik nahasketa gerta badaiteke.

4. art. Bide publikoen errotulazioa zerbitzu publiko bat da, eta plaka bidez eginen da, betiere agerian jarrita, gutxienez bide publikoaren hasieran eta bukaeran. Plazetan, berriz, eraikin nabarmenean kokatuko da, halako bat baldin bada, eta sarbide nagusietan.

5. art. Eraikinen jabeak beharturik egonen dira dagokien zenbakia jartzera, bakarka nahiz taldeka eskatzen zaienean. Beharkizun hori betetzen ez badute finkatutako epearen barrenean, Alkatezak izendatzen dituen langileek paratuko dute, eta gastuak eraikinaren jabearen kontura izanen dira, agindua ez betetzeagatik dagokion isunetik aparte.

6. art. 1. Errotuluak eta zenbakiak jarri behar diren eraikinen jabeek onartu beharko dute bertan paratzeko agindua eta kokapena errespetatu ez ezik zaindu ere egin beharko dituzte, egoera

onean iraun dezaten eta ongi ikus daitezten.

2. Errotulu eta zenbakiek eta haiek jartzeko euskarriek bat etorri beharko dute, ahal dela, fatxada, zona edo sektorearen ezaugarri artistikoekin.

3. Zortasun administratibo hau doakoa izanen da eta ukituriko jabeari jakinarazi beharko zaio.

## II. KAPITULUA

Eremu publikoen kontserbazioa

7. art. Udal Administrazioak arduratu beharko du eremu publikoen egiturazko nahiz apainketako elementuak egoera onean kontserbatzeko lan eta obrak egiteaz. Inork ezin izanen du aipatu elementu horiek konpondu edo berritzeko obrarik egin, aldez aurretik Udalak lizentziarik eman ez badio, nahiz eta obra horiek eremu publikoen egoera hobetzeko xedez egin.

## II. TITULUA

Eremu publikoaren erabilera

### I. KAPITULUA

Arau orokorrak

8. art. Debekaturik dago:

- a) Eremu publikoa erabiltzea auto edo motoen konponketarako, edo metal arotzerian, iturgintzan edo antzekoetan jarduteko, edo ibilgailuak nahiz animaliak garbitzeko.
- b) Ibilgailuak abandonaturik uztea, jendearen higiene, osasun eta segurtasunerako arriskutsuak izaten ahal badira.
- c) Eremu publikoan edariak kontsumitzea, edontziak eta botilak lurrera botaz.
- d) Alfonbrak edo beste edozein gauza eremu publikoan garbitzea.
- e) Arropak, alfonbrak edo beste edozein gauza eremu publikoaren gainean astintzea.
- f) Lorontziak urreztatzea, zikinkeria edo ura eremu publikora botaz.
- g) Pixa egin eta irazkinez zikintzea eremu publikoa.
- h) Futbolean, pilotan edo beste edozein kirolean aritzea kale, plaza edo parke publikoetan.

9. art. Eremu publikoan mahaiak eta aulkiak paratzeko, gai horri dagokion zerga arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritakoa bete beharko da.

10. art. Obretako hesiak paratzean, eremu publikoa okupatzen bada, Antsoaingo Udal Planeko determinazioak bete beharko dira.

11. art. Publizitatea egiten ahalko da eremu publikoan, horretarako baimendutako tokietan, dagokion ordenantza fiskalak ezarritako ezaugarriak dituela, edo propaganda banatuz. Lizentzia eskatzerakoan iragarkiaren jatorrizko alea edo kopia aurkeztu beharko da.

## II. KAPITULUA

Asotsa

12. art. 1. Eremu publikoan asotsik sortuz gero, ez dira gaudituko herritarren elkarbizitzarako behar diren mugak. Eraikin eta langintza desberdinetan sortzen den asotsa dela eta, bete beharko dira jarduera sailkatuen arloko foru edo udal araudiak eta asots edo dardarak sortzen dituzten jarduerak bete behar dituzten baldintza teknikoak ezartzen dituen Foru Dekretua.

2. Debekaturik dago:

- a) Eremu publikoan nahiz zerbitzu publikoko ibilgailuetan kantatzea edo oihuka aritzea.
- b) Sobera altu kantatzea edo solas egitea eraikin partikularren barrenean, ezarritako asots-mailak gaindituta.
- c) Etxebizitzetan musika-tresnak jotzea, gela edo lokala behar bezala intsonorizatu gabe.
- d) Etxe-atarietan, etxabeetan, edo galerietan, beren asots eta oihuekin auzoaren atsedinari traba egiten dioten animaliak edukitzea.
- e) Mota guztietako petardoak saldu edo erabiltzea eta suziriak jaurtikitzea udal-baimenik gabe.
- f) Gauaz obrak egitea.

13. art. Irrati, telebista, transistore, musika aparatu edo bestelako soinu-sortzaileen jabeek, asots edo dardarak sortzen dituzten jarduerak bete behar dituzten baldintza teknikoak ezartzen dituen Foru Dekretuan baimendutako asots-mailak gaindituko ez dituen bolumena erabili beharko dute. Horretaz gain, establezimenduetako alarmak arrazoi justifikaturik gabe joka hasten badira, haien jabeei zehapena ezarriko zaie.

### III. KAPITULUA

#### Ibilgailuen asotsak

14. art. Eremu publikoan dabiltzan ibilgailuen motor eta ihes-tutuek ezin izanen dute jarduera sailkatuentzat finkatutako mugak hausteko moduko asotsik atera, non eta ez diren muga haien orde besterik batzuk baimentzen, orduan muga berriak aplikatzen ahalko baitira.

### IV. KAPITULUA

#### Iturri publikoak

15. art. Iturri publikotzat hartuko dira eremu publikoan daudenak edo landa-bazterretan izanagatik jende guztiak erabiltzen ahal dituenak. Iturburuek Ur Legeetan ezarritakoa izanen dute arau.

16. art. Iturri publikoetan debekaturik dago:

- a) Arropa, fruta, barazkiak edo beste edozein gauza garbitzea.
- b) Jendea garbitu edo bainatzea eta zakurrak nahiz bestelako animaliak bainatzea.
- c) Kanilatik edo txorrotatik zuzenean edatea.
- d) Etxeko animaliei giza kontsumorako diren iturrietatik zuzenean edatera uztea.
- e) Klase guztietako ibilgailuak garbitzea.

### V. KAPITULUA

#### Parkeak eta lorategiak

17. art. Udalaren eskumena da eremu publikoetako parke eta lorategietan landaketak egitea eta horiek zaintzea. Arbolak denok errespetatu beharrekoak dira eta kalte egin liezaiekeen egintza oro saihestu behar da. Parke edo lorategietako edozein landareri kalte egiten diona, hura moldatzeko ordaina ematera beharturik dago.

18. art. Debekaturik dago:

- a) Ageriko seinaleez mugatutako berdeguneak zapaltzea.
- b) Arboletara igotzea.
- c) Txoriak ehizatzea eta hiltzea.

- d) Banku publikoetan etzatea eta gauez bertan lo egitea.
- e) Berdeguneetan hondakinak botatzea, paperontziak eta zakarrontziak erabili gabe.
- f) Lorategietan sua piztea edo piztua edukitzea.
- g) Kanpadendak zabaltzea.
- h) Nolanahiko ibilgailuen zirkulazioa debekatzen duten zirkulazio-seinaleetako arauak haustea.
- i) Kalez kaleko salmentan aritzea, udal-baimenik gabe.
- j) Zakurrak lotu gabe eramatea.
- k) Soropilean edo espaloietan nolanahiko ibilgailuz zirkulatzea (kotxeak, motozikletak, bizikletak, e.a.).
- l) Bonbillak, farolak eta semaforoak haustea.
- m) Zaldi aziendak edo bestelako animaliak bazkatzera sartzea.

19. art. Debekatua dago pixa egitea eta irazkinez edozein eremu publiko edo jende guztiak erabiltzekoak diren lekuak zikintzea. Halakorik egiten duena eta aitzakiatako eritasunen bat jasaten duela frogatzen ez duena, zehatua izanen da.

### III. TITULUA

Eremu publikoaren garbitasuna

#### I. KAPITULUA

Eremu publikoaren garbitasuna, herritarren erabilera orokor eta arruntaren ondorioz

20. art. Garbitasunari begira, honako hauek hartzen dira eremu publikotzat: etorbideak, pasealekuak, kaleak, espaloiak, zeharkaleak, bideak, lorategiak eta berdeguneak, lurguneak, zubiak, bide-tunelak eta zuzenki herritarren erabilera arrunt eta orokorrerako diren erabilera publikoko gainerako ondasunak.

Eremu publikoko plazak eta kaleak Udalak garbituko ditu.

21. art. 1. Debekaturik dago eremu publikoan nolanahiko hondakin solido, likido eta gaseosoak botatzea eta uztea. Tamaina txikiko hondakin solidoak, hala nola paperak, txikleak, zigarro-muturrak eta antzekoak, horretarako dauden paperontzietan bota beharko dira, eta horiek besterik ez, zeren debekaturik baitago bertan bestelako hondakinak eta zabor poltsak botatzea.

2. Hondakinak bolumen handikoak badira, edo tamaina txikikoak izan arren multzo handia osatzen badute, debekaturik dago eremu publikoan uztea, eta modu berezian bilduko dituzte horretarako antolatutako zerbitzuek.

3. Debekaturik dago paperontzietan zigarroak, puruak, zigarro-muturrak edo beste zernahi botatzea, piztuta egonez gero. Botatzekotan, itzalita bota beharko dira.

22. art. 1. Ondoko hauek espaloiak garbitu beharko dituzte, eta hori egin ezean Udal Administrazioaren aurrean erantzun beharko dute:

- a) Espaloia fatxadarena baldin bada, eraikinaren jabeak, eraikinaren funtzioa edo helburua edozein delarik ere.
- b) Beheko solairuan saltokiak edo dendak baldin badaude, beren aurrealdeak hartzen duen espaloi-zatia negozioaren titularrek garbitu beharko dute.
- c) Titular administratiboak, espaloiak eraikin publikoei dagozkienak badira.
- d) Jabeak, eraiki gabeko orubeei dagozkien espaloiak direnean.

e) Elikagaien salmenta automatikorako makinak titularrak.

f) Jabari publikoko zoruaren gaineko erabilera bereziaren lizentzia administratiboaren titularrak (terrazak, kioskoak, etab.).

2. Partikularrek eremu publikoa eskobatu eta garbitzean sortzen diren hondakinak ezin izanen dira, inoiz ere, kalean utzi. Ontzi homologatuetan jaso beharko dira edo, bestela, beren pisu eta neurriarengatik hala behar badu, etxez etxeko zaborbilketako zerbitzuaren esku jarri beharko dira.

## II. KAPITULUA

Eremu publikoko zikinkeria, obrek eta bestelako jarduerak sortua

23. art. Eremu publikoan zikinkeria sor dezaketen jarduerak egiten badira, nonahi eginak izanagatik eta batere ukatu gabe kasu bakoitzean behar diren lizentziak edo baimenak, titularrak behartuak daude alde aurreko neurriak hartzea eremu publikoan zikinkeriarik izan ez dadin, eta orobat behartuak daude bai eremu publikoa bai bertako egitura-elementuak garbitzera, eta gelditu diren materialak jasotzera.

24. art. 1. Zikinkeriarik ez sortzeko, obrak egiten ari direnek eremu publikoa babestu beharko dute, elementu egokiak paratuz zahorren eta eraisketako nahiz obran sobratutako materialen inguruan, ez daitezkeen barreiatu eta zabaldu obra-lanek zehazki hartzen duten esparrutik kanpora, hala agintzen baitu gaur egun indarra duen Udal Planeko Eraikuntzako Ordenantzak.

2. Bereziki, eremu publikoan egiten diren zanga, kanalizazio eta lotura lanen inguruak, beti garbi eta inolako hondakinik gabe eduki beharko dira. Ateratako lurra aurreko 1. zenbakian zehaztu bezala babestu beharko da.

3. Obrak eremu publikoan edo alboko lekuren batean egiten direnean, hesiak eta babes-elementuak nahiz seinaleak ezarri beharko dira. Horietaz gain, hodiak ere beharko dira, eraisketako materialen eta produktuen zamalanetarako, behar diren baldintzak betetzen dituztenak, eremu publikoa ez zikintzeko eta jendeari edo gauzei kalterik ez egiteko.

4. Eraikinak jasotzen ari diren bitartean, eremu publikoa garbitzeko betebeharra, 23 eta 24. artikuluetan ezarritako esparru material osoan, obrako kontratistarena da.

25. art. 1. Debekaturik dago eremu publikoan nahiz bertako edozein elementutan hondakinak zuzenean utzi, hustu edo botatzea. Betiere, hondakinak eremu publikoan uzteko, Udalak edo kasuan kasuko entitateak homologatutako edukiontzia erabili beharko dira.

2. Eremu publikoan abandonatutako materialak, Hiri hondakin solidoei buruzko azaroaren 19ko 42/1975 Legeari jarraikiz, udal jabetzako bihurtuko dira, eta interesatuak ezin izanen dio ez Udalari ez egiteko horren kargu egin denari ezer erreklamatu egin dutena egiteagatik, material horiek bertatik kentzeagatik, eta gainera aplikatzen ahalko zaio egindako zerbitzuari dagokion tasa fiskala edo kasurako dagozkiekeen zehapenak.

26. art. Debekaturik dago, dagokion zerbitzuak bildu zain eremu publikoan utzitako hondakinetan bilaka ibiltzea eta handik ezer hartzea.

27. art. 1. Eremu publikoa zikin dezakeen edozein ibilgailuren zamalanak, obra nahiz biltegi-tako sartu-irtenak, etab. bukatutakoan, lan horietaz arduratu den pertsonalak eta, subsidiarioki, lanak egin diren establezimendu nahiz obretako titularrak eta, azken finean, ibilgailuaren jabeak edo gidariak, garbitu beharko ditu bai eremu publikoa bai bertan zikindutako elementuak, eta, orobat, jaso beharko ditu han botatutako materialak.

2. Aurreko zenbakian aipatutako pertsonak izanen dira (han aipatu hurrenkera berean) ordenantza honetako xedapenak haustearren eta gerta daitezkeen kalteen erantzule.

### III. KAPITULUA

Eraikin higiezinetakako elementuen eta kanpoaldean garbitasuna eta mantentze-lana

28. art. 1. Eraikin higiezinaren jabeak behartuak daude haien segurtasun, garbitasun eta apaintura publikoko baldintzak zaintzera.

2. Debekaturik dago arropa, janjaki eta etxeko gauzak hedatzea edo agerian uztea balkoietan, leihoetan, kareletan, kanpoko terrazetan edo, beren kokapen eta orientazioagatik, kaletik ikusten ahal den beste edozein lekutan. Debekaturik dago, baita ere, mota guztietako antenak paratzea eraikinetako fatxada edo balkoietan.

29. art. 1. Establezimendu, finka eta etxebizitzetako jabeak behartuak daude garbi edukitzera fatxadak, kaleko zenbakien errotiluak, ageriko mehelinak, sarrerak eta kaletik ikus daitezkeen eraikinetako sarbideko eskailerak.

2. Honen aurreko 1. zenbakiari dagokion guztian, jabeek egin beharko dituzte mantendu, garbitu eta iztukatze lanak, apaintura publikorako beharrezko denean eta udal-agintaritzak, dagokion udal zerbitzuak aldeztuz txostena egin ondoren, hala agintzen duenean.

3. Jabeek, orobat, garbi eduki beharko dituzte tximiniak, deposituak, patioak eta argi-patioak, ur eta gas hodiak, hustubideak, tximistorratzak, telebisten antenak eta, oro har, eraikinen osagarri diren gainerako instalazioak.

### IV. KAPITULUA

Orubeen garbitasuna eta mantentze-lana

30. art. 1. Jabeek zabor eta hondakinik gabe eduki beharko dituzte orube eta lursailak, eta behar bezalako baldintzetan, higiezinaren, osasungarritasunaren, segurtasunaren eta apaintura publikoaren aldetik.

2. Aurreko aginduan sartzen da orubeetako arratoi-galtzea eta desinfekzioa.

3. Udalak ahalmena du aurreko 1. eta 2. zenbakietan aipatutako garbiketa lanak ikuskatu eta subsidiarioki eginak izan daitezela agintzeko, orubeak publikoak nahiz pribatuak izan.

31. art. Udal Zerbitzua edo herria garbitzeko lana adjudikatua duen enpresa arduratuko da aurreko artikuluan aipatutako lanen ordezkotzat betearazpenaz, gastuak kargatuz egiteko betebeharra zuenari eta ordenantza fiskalek xedatzen dutenaren arabera, eta, gainera, ezartzen ahalko zaizkio dagozkiokeen zehapenak.

32. art. 1. Hirigintzako planeamenduak ukitutako finkek badira eta jabeek erabilera publikorako lagapena egina badute, Udalak, interesatuek diotena entzun ondoren, bere gain har dezake, osotara edo parte batean, 30. artikuluan aipatutako baldintzak betetzeko ardura.

2. Aurreko 1. puntuan aipatutako kasuan, Alkatetzak, bere ahalmenaz baliatuz, erabakiko du zer egin behar den, herritarren interesei begira.

### V. KAPITULUA

Animaliak eremu publikoan edukitzeak garbitasunaren gainean duen eragina

33. art. 1. Jabeak dira beren jabetzapeko animaliek pertsona eta gauzen gainean eragindako kalte edo hondamenen erantzule zuzenak, bai eta eremu publikoa zikinduz egiten duten edozein egintzaren ere.

2. Jaberik agertu ezean, zikinkeria sortutakoan animalia zeraman pertsona izanen da erantzule subsidiarioa.

34. art. 1. Higiezin-neurri utziezina denez, eremu publikoan zakurrak edo bestelako animaliak

daramatzaten pertsonak behartuak daude beren animaliei irazkinak egiten ez uztera, eremu publikoko oinezkoen ibiltoki, parterre eta berdeguneetan, eta eremu publikoan herritarren pasabide, egonleku eta jostaleku diren gainerako tokietan.

2. Zakurra beti ibiliko da norbaitekin, pertsona arduradunak lotuta eta kontrolaturik daramala.

## VI. KAPITULUA

Herritarrak elurteetan egin beharrekoa, eremu publikoa garbi egon dadin

35. art. Elurtea izan eta sortzen den egoera larrialdikotzat jotzen denean, zona ez da normaltasunera itzuliko Alkatetzak hala kontsideratu eta espresuki aitortzen ez duen arte.

36. art. 1. Elurte kasuetan, 22. artikuluan aipatzen diren pertsonak eta, subsidiarioki, eraikinen arduradunek, ondoko 2 eta 3. zenbakietan aipatzen diren prebentzioak hartu beharko dituzte.

2. Finketako enplegatuek edo, bestela, eraikinetako bizilagunek edo eraikinen garbitzeko ardura duten pertsonak, elurra eta izotza kendu beharko dute fatxada aurrean dagokien espaloiz zatian, oinezkoak pasatu ahal izateko behar den lekua libre uztearren.

3. Elurra eta izotza espaloian pilatuko dira, galtzadan utzi gabe, honela:

- a) Aparkaturik dauden ibilgailuen gainean utzi gabe.
- b) Uraren eta ibilgailuen zirkulazioa galarazi gabe.
- c) Estolderia sareko kainozulorik hurbilenaren sarbidea estali gabe.

37. art. Eremu publikoko elurra garbitu eta biltzeko lanek dirauten bitartean, ibilgailuen jabeek eta gidariek kasu egin beharko diete udal agintariek aparkatzeari buruz ematen dizkieten jarraibideei.

38. art. Inola ere ez da eremu publikora botako zabalza, terraza, balkoi eta eraikinen bestelako irteerak pilatu den elurra, salbu Alkatetzak kontrako xedapenik ematen badu.

## IV. TITULUA

Herriaren garbitasuna, erabilpen arrunt, berezi eta pribatiboari eta kaleko agerpen publikoei dagokienez

### I. KAPITULUA

Baldintza orokorrak eta aplikazio-esparrua

39. art. Titulu honek udalerriko garbitasuna zaintzeko arauak ematen ditu, ondoko kasu hauek:

- a) Udal jabari publikoko ondasunen erabilpen arrunta, berezia eta pribatiboa egiten denean.
- b) Klean egindako ekitaldi publikoetan eta publizitateko zenbait jardueratan, haien ondorioz sor daitekeen zikinkeria prebenitzeko.

40. art. 1. Erabilpen arrunt eta pribatiboaren ondorioz eremu publikoan zikinkeria sortzen denean, erabiltzaile titularrak izanen dira haren erantzule.

2. Finkoak nahiz ez-finkoak diren establezimenduetako titularrek, hala nola taberna, kafetegi, kiosko, salmentako postu eta antzekoetakoek, behar bezain garbi eduki beharko dituzte bai instalazioak bai haien eraginpeko espazioa.

3. Udal-zerbitzuak edo hiri hondakin solidoen bilketako adjudikazioa duen enpresak, aurreko 2. zenbakian aipatutako titularrak behartu ditzake kontsumoagatik beren establezimenduetan sortutako hondakinak edukitzeko elementu homologatuak paratzera. Horretaz gain, titular horiei dagokie, baita ere, elementu horiek zaintzea eta garbitzea.

41. art. 1. Kanean ekitaldi publikoren bat antolatzen dutenak, ekitaldi hori egiteagatik kanean sortzen den zikinkeraren erantzule izanen dira.

2. Herriaren garbitasuna dela eta, ekitaldi publikoen antolatzaileek, ekitaldiaren leku, ibilbide eta ordutegiaren berri eman behar diote Udalari. Udalak eskatzen ahalko die eskudiruzko fidantza eratu edo bankuko abala aurkezteko, ekitaldi publikoak sortzen duen zikinkeraren ondorioz antolatzaileei legokiekeen garbiketarako zerbitzu subsidiarioen kostua kitatzeko adinakoa.

42. art. Ordenantza honi dagokionez, honako hauek honela ulertu behar dira:

1. Kartelak dira iragarkiak -inprimatuak nahiz pintatuak-, paperean edo sendotasun txikiko beste material batean eginda badaude. Kartelak formato txikikoak eta eskuz banatzekoak badira, orrikkak direla esanen dugu.

2. Errotuluak dira iragarkiak, finko edo mugikorak, pintura, baldosa eta iraupen luzea emanen dieten bestelako materialez eginda badaude.

3. Pankartak dira tamaina handiko iragarki publizitarioak, eremu publikoan gehienez ere hamabost egunez egoten direnak.

4. Pintaketak dira eremu publikoan egindako eskuzko inskripzioak, herriko horma edo paretetan, espaloi edo galtzadetan, edo egiturazko elementuren batean eginak.

5. Opuskuloak eta esku-paperak dira paperez nahiz antzeko materialez egindako argitalpenak, edozein agerpen publiko nahiz pribatutan herritarrei eremu publikoan ematen zaizkienak edo banatzen direnak.

6. Errotulutzat hartuko dira kartelak, instalazio edo babes aldetik hamabost egunetik gorako iraupena izateko baldintzetan ezartzen direnean.

43 art. Kartel eta pankartak paratzeko eta itsasteko, orrikkak banatzeko eta titulu honetan araututako beste edozein publizitate-jarduera egiteko, beharrezkoa izanen da Alkatetzak edo, hala badagokio, Gobernu Batzordeak aurretiaz emandako udal-baimena.

44. art. 1. Errotuluak eta aurreko 42. artikuluan aipatutako gainerako publizitate-elementuak paratu edo banatu ahal izateko baimena jasotzearekin batera, erantzuleak bere gain hartu beharko du eremu publikoan erabilitako espazioaren eta dagozkion osagarrien garbiketa.

2. Eremu publikoan 42. artikuluan aipatutako publizitate-elementuak paratu edo banatu ahal izateko, Udalak eska dezake eskudiruzko fidantza eratzea edo bankuko abala ekartzea, zikinkeria sor dezaketen elementuak garbitu eta jasotzeko kostuak kitatzeko adinakoa.

## II. KAPITULUA

Eremu publikoan kartelak eta pankartak paratzea

45. art. Debekaturik dago kartelak eta eranskailuak bereziki horretarako antolatutako tokietatik aparte paratzea eta itsastea, udal-agintaritzak bereziki baimendutako kasuetan salbu.

46. art. 1. Udalak hartarako erabakitako tokietan paratzen diren kartel eta eranskailuek herritarrentzat interesgarriak diren ekitaldien edo jardueren berri eman beharko dute.

2. Ez dago kartelak paratzen hasterik aitzinetik udal agintariei behar den jakinarazpena egin gabe. Arau-hausleei zehapena ezarriko zaie.

47. art. 1. Eremu publikoan pankartak paratzea debekaturik dago, non eta Alkatetzak ez duen espresuki baimentzen.

2. Udalaren organo eskudunak kasu bakoitzean arautuko du nolako baldintzetan erabiltzen ahalko diren udal tokiak publizitatea egiteko, eta nolako tramiteak egin behar diren horretarako baimena lortzeko.



3. Pankartetan agertzen ahalko den propaganda bakarria gai politiko nahiz herrikoari buruzkoa izanen da, beste inolako publizitaterik sartu gabe.

4. Pankartak paratzeko baimen-eskabidean, honako hauek adieraziko dira:

a) Pankartaren edukia eta neurriak.

b) Zein tokitan paratu nahi den.

c) Zenbat denbora egonen den jarrita.

d) Erantzulearen konpromisoa, eremu publikoan edo bertako egitura-elementuetan egindako kalteak konpontzeko, eta pankarta paratzearen ondorioz sor daitezkeen kalte eta galerak ordaintzeko.

48. art. Eremu publikoko egitura-elementuei estekatutako pankartek, nolnahi ere, honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Ezin izanen da pankartarik paratu farola artistikoetan.

b) Zuhaitzetan lotutako pankartei dagokienez, zuhaitzaren zirkunferentzia 50 zentimetro izanen da gutxienez. Pankarta adarrei lotua baldin badago, hauek gutxienez 30 zentimetroko zirkunferentzia izan beharko dute.

c) Pankartaren azalerak behar adina zulo izanen ditu haizearen eragina apaltzeko.

d) Nolanahi ere, paratzeko gutxienerako altuera, punturik baxuenean neurtuta, 5 metrokoa izanen da pankartak galtzada alderik alde zeharkatzen duenean, eta 3 metrokoa espaloi, pasealeku eta oinezkoen beste gune batzuetan.

49. art. 1. Pankartak interesatuek kendu beharko dituzte, haiek jartzeko eskatutako epea bukatu bezain laster. Hala egiten ez badute, udal-zerbitzuek kenduko dituzte eta egindako zerbitzu horren kostua erantzuleei ordainaraziko zaie, legokiekeen zehapenaz gainera.

2. Pankartak eremu publikoan baimenik gabe jarriz gero, udal- agintaritzak zehapena ezarriko die erantzuleei.

### III. KAPITULUA

#### Pintaketak

50. art. 1. Debekaturik dago eremu publikoan pintaketak egitea, hala bertako egiturako elementuetan, galtzada, espaloi eta hiri-altzarietan, nola herriko kanpoaldeko horma eta paretetan.

2. Salbuetsita daude, aurreko zenbakian xedatutakoari dagokionez, honako hauek:

a) Orubeetako hesietan egindako horma-pintura artistikoak, baina horretarako udalaren eta orubearen jabearen baimena beharko da alde zuzenetik.

b) Publizitatearen udal ordenantzak baimentzen dituen egoerak.

### V. TITULUA

#### KAPITULU BAKARRA

#### Zehapenak

51. art. 1. Ordenantza honetako arauak hausten dituztenei 50.000 pezeta bitarteko isunak ezarriko dizkie Alkatetzak, eta, gainera, erantzuleei erreklamatzeko ahalko zaie, egoki den moduan, garbiketako eta konponketako gastuak ordaintzea eta, hala beharko balitz, auzitara eramanez ere izan litezke.

2. Enpresek edo entitateek egindako arau-haustek zehatzen ahalko dira, eta haien gain uzten ahal dira, baita ere, sortutako gastuak eta dagozkien ordezkio betearazpenak, betiere Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legeari eta aplikatzekoa den gainerako legediari jarraikiz.

Iragarkiaren kodea: A0109628